



TARTALO, MARI ETA
HERENSUGEA

Antton Irusta

Enrique Morenteren marrazkiak

Desclée De Brouwer



HITZAURREA

Bazen behin iratxo bat, iratxo eder bat. Bidaia bat egin ondoren, itsasbazter hartan eseri zenean, bere oinak uretan sartuta, entzun zituen txortxorrean gizonak, landareak, abereak eta mamuak. Denak elkarren artean hitz eta pitz, txutxu-mutxuka.



Gau batez, iratxo hori ikustera joan nintzen eta bertan entzundako zahar-berriak eta ahoko mintzoak di-da batean kontatu zizkidan, laguntxo bati moduan.

Horra hor, berban-berban. Zuk ere bala-bala konta itzazu, ahoz aho, zaharrak berrituz.

Antton Irusta

1

JOSTUNA,
ZAPATARIA
ETA LAPURRAK



JOSTUNA, ZAPATARIA ETA LAPURRAK

Aspaldi batean bazen jostun gizajo bat jende guztia-
rekin zorretan zegoena. Zorretan zegoen harakinarekin,
okinarekin, dendariarekin,
berdura-zalearekin, botika-
riarekin, medikuarekin eta
zapatariarekin.



Bere lanbidean oso diru gutxi irabazten zuen eta horrekin ez zeukan justu-justu bizitzeko adina ere. Gero eta erreagoa zegoelarik, behin batean hildakoarena egitea erabaki zuen, horrela auzoko hartzaile guztiek zorrak bar-katuko zizkiotelakoan.

Albiste txarra berehala zabaldu zen ahoz aho. Berria jakitean, herriko jendeak asko sentitu zuen eta laster ahaztu ziren denak jostun gizajoak



zor zizkien erreal haietaz. Bar-
katu ez zuen bakarra herriko
zapataria izan zen, oso zikoi-
tza eta burugogorra baitzen.

—Niri erreal bat zor dit eta
pagatu beharko dit, hilda ba-
dago ere -esan zuen-. Pagatu
beharko dit, bai, egiazko Jain-
ko bakarra dagoen bezala pa-
gatu ere.

Garai hartako ohiturari ja-
rraituz, jostunaren adiskideek
elizara eramán zuten haren
gorpua gaubeilarako, kanpo-



santuan lur emateko ordua iritsi arte. Zapataria joan zen elizara, hurbildu zen jostuna zegoen hilkutxara eta oihuka esan zion:

—Emadazu nire erreala, emadazu nire erreala!

Horretan ari zela, lagun batzuk zetozela sumatu zuen eta zapataria konfesionario batean ezkutatu zen segituan. Elizara zetozenak lapurrak ziren: beren ibileretan ostutako sosak partitzera zetozen,



hain zuzen. Zazpi pilatan jarri zituzten, lagunak baino bat gehiago, zeren lapurrak sei bakarrik baitziren.

—Zeinentzat da zazpigarren hau? —galdetu zuen batek.

—Hildakoari urdailean saskakada bat ematen dionarentzat —erantzun zuen buruzagiak.

Hori entzutean, galdera egin zuen lapurrak esan zuen:

—Neuk emango diot.



Hurreratu zen hildakoa-
rengana eta, labana sartzera
zihoala, salto handi bat eginez
altxatu zen hildakoa eta deia-
darka hasi zen:

—Lagun nazatela hildakoen
arimek!

—Hara goaz denok batera!
—erantzun zuen zapatariak
konfesionarioko ezkutaleku-
tik.

Orduan lapurrak, beldu-
rrez ikaratuta, diru-partiketaz
ahaztu eta korrika irten ziren

